

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña

DATA: 2017/11/15

Saila	Laburpena	
Hirigintza	Auzotar batek galdetu du Azpiakutuen Ospitalearen ingurua nola geratuko den. Eskatu du hobetzea.	Ospitalearen partzela urbanizatu da. Inguruan egoera txarrean dauden eraikinak daude, Jarduera Ekonomikoko Esku-hartzeen Unitatearen parte direnak. Sustapen-enpresa batek Norika enpresa zaharra eskuratu du eta inguru haren eraldaketa bultzatzen ari da.
Zerbitzuak	Auzokide batek jakin nahi du nola dagoen Amañako ikastetxearen hegala. Jakin nahi du noiz konponduko den.	Obrak 2018ko urtarrilaren hasieran hasi ziren eta hiru asteren buruan amaitu ziren. Hondatutako lekuak pikatu ziren, herdoildutako ingurua zepillatu zen eta korrosioaren aurkako inprimazioa egin zen, eta, azkenik, ukitutako gunek berreraiki ziren.
Zerbitzuak	Bizilagun bat kexatu da argi gutxi dagoelako Otaola Hiribidean, argiak estaltzen dituzten adarreatatik. Inaustea ere eskatzen du.	2017ko abenduaren 19 eta 20an, Otaola hiribideko zuhaitzak inausteari ekin zitzaion, argiteriaren arazoa konpontzeko.
Udaltzaingoa	Legarregainen aparkaleku gutxi dagoela salatu du batek. Dioenez, ibilgailu asko espaloi gainean lagatzen dira.	Gaia kontrolatzen da eta salatzen dira gaizki aparkatzen diren ibilgailuak.
Udaltzaingoa	Batek galdetu du ea Karlos Elgezua 6 bis kalekkan noranzko bakarra jar daitekeen.	Amaña kalea Karlos Elgezuarekin lotzen duen kaleari erreferentzia egiten badio, aukera dago bi noranzkoak izateko, batean lagatzeko edo kalezulo bat izateko, ahalbidetuko lukeena Karlos Elegezua 2,4 eta 8rako oinezkoen irisgarritasuna. Hori Obra saila baloratzen ari dena.
Zerbitzuak	Tiburtzio Anitua 1 zk.aren parean dagoen espaloian, Amaña 12 inguruan, ea barandarik jar daitekeen galdetu du auzotar batek.	Euskal Trenbide Sareak duela gutxi egindako berrurbanizazio-lana Eibarko Udalak jaso du duela gutxi; eta Obra eta Hirigintza sailek onartu egin dituzte irisgarritasunari buruzko baldintza

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña

DATA: 2017/11/15

Saila

Laburpena

teknikoak. Nahiz eta, legez, % 8tiko gorako maldetan baranda bikoitza beharrezkoa izan, gune horretan ez dago eta, bai estetikoki zein funtzionalki, ez da beharrezkotzat jotzean.

Obrak

Auzotar batek planteatzen du Corte Inglés parean dagoen biribilguneko espaloia zabal dadila eta bertan baranda bat jar dadila.

Espaloi hori ez zegoen aurreikusita ETS proiektuan, non Legarre eta Amañako trenbideak estali eta biribilgunea sortu zen trafikoa antolatzeko. Obran, biribilgunearen soluzioa berrikusi zen eta espaloia eraiki, kontuan hartuta ibilgailuen trafikoa eta oinezkoen segurtasuna. Hortaz, eskuragarri dagoen espazioak ez du lagatzen espaloia zabaltzen eta ez da beharrezko ikusten baranda bat jartzea.

Zerbitzuak

Kexu da Amaña 2.4 patioen inguruan hezetasun-arazoak daudelako, han dagoen hormak sortuak.

Obrak Atax enpresak egin zituen otsailean. Lehenik, horma garbitu zen ura presioz jaurtiz eta, ondoren, dauden arrakalak estali ziren.

Hirigintza

Kexu da ALFAko keak direla eta.

Alfa enpresa eraldaketa-prozesu batean sartuta dago. Jardueran aldaketan izan dira eta egun dauden jarduerak legeztatzen ari dira. Ke-igorpenak Udalak eskatzen dituen Jardueren espedienteen barruan kontrolatuko dira; igorpen horien eskumena eta kontrola Eusko Jaurlaritzari dagozkio, hura baita horretarako bitarteko egokiak dituena.

Udaltzaingoa

Amaña auzoan aparkatzea zaila dela dio auzoko batek.

Gaizki aparkatzen diren ibilgailuak kontrolatu eta salatzen dira.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña

DATA: 2017/11/15

Saila	Laburpena	
Obrak	Karlos Elgezua 2 zk.ko espaloiri konponbide bat ematea eskatu du batek. Dioenez, irisgaitza da eta ez dago zebra-biderik.	Espaloiak jarraitzeak Amaña kalea Karlos Elgezuarekin lotzen duen bidearen itxiera eragingo luke.
Zerbitzuak	Kexu da Amañako geltoki berriaren ondoan dagoen komun publikoa zikina dagoela eta.	Amañako komun publikoak astelehenero, asteazkenero eta ostiralero egiten da. Hala ere, garbiketa enpresari jakinarazi zitzaion eta premiaz egin zuen lana.
Zerbitzuak	Tiburtzio Anituako dorreen inguruko desratizazioa eskatu du, 25 eta 31 zenbakien artean.	Udalerrian arratoiak akabatzeko arduraren duenari abisua pasatzen zaio inguru hartako arratoiak kentzeko egin beharrekoak egin ditzan.
Zerbitzuak	Auzokide batek eskatu du Tiburtzio Anituako dorreen behealdea garbitzea, 32 zk.aren inguruan.	2018ko apirilaren 19an egin zen garbiketa. Zigarro pila bat zegoen, norbaitek leihotik botata.
Zerbitzuak	Tiburtzio Anitua 21 zk.ko igogailu publikoaren funtzionamendu eskasaz kexu da bizilagun bat.	Igogailuak arazo bat izan zuen. Urtarrilean konpondu zen eta, orduz geroztik, ondo dabil.
Hirigintza	Informazioa eskatu du material piroteknikoa biltzeko lokal baten irekierari buruz, Tiburtzio Anitua 4. zk.an.	Hainbat gestio egin ondoren, azkenean, ez zen jardura hori ezarri.
Obrak	Auzokide batek informazioa eskatu du Tiburtzio Anitua 2. zk.aren eta Karlos Elgezuaren arteko igogailuari buruz.	Aurreikusita dago obrak 2019aren hasieran hasia.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek salatu du norbaitek zaborra botatzen duela Karlos Elgezua 1 zk.an dagoen paperontzira.	Oraingoz ez da identifikatu zein den zaborra paperontzian lagatzen duen pertsona. Gainera, ez dago zaborra paperontzian lagatzea zigortzeko arau-hausterik.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña

DATA: 2017/11/15

Saila	Laburpena	
Obrak	Bizilagun batek eskatu du Bustindui 8 eta 18 zenbakien artean arrapala bat egiteko. Dioenez, eskailerak daude eta eskubandarik ere ez dago.	Soluzio bat definitu da eta da espaloia zabaltzea bi mailatan jarriz, Tiburtzio Anitua 16-20an bezala; bai eta galtzadaren desplazamendua ere, beheko ezpondaren zati bat betez. Hura gauzatzea aurrekontuaren disponibilitatearen arabera da.
Alkatetza	Salatzen du Karlos Elgezuan ura marroi ateratzen dela.	Arazo puntual bat izan zen eta konpondu zen; ez zuen inoiz arriskuan jarri ur hori kontsumitu zuten pertsonen osasuna, beti izan baitzen edatekoa. Ur zikinen gertakariaren arrazoiak, Gipuzkoako Urak entitatearen iturriek Alkatzari igorri zioten txostenaren arabera, Aixolako urtegiko uraren aldea (zeinak hornitzen duen Amaña, Tiburtzio Anitua, Argatzako Jardina eta Ibur Errekako Poligonoa) eta euri eskasia dira.
Zerbitzuak	Kexu da Karlos Elgezua inguruan arazo bat dagoelako zaborrekin. Oso usain txarra dagoela dio eta arratoiak ere badaudela.	Udalerrian arratoiak akabatzeko ardua duenari abisua pasatzen zaio inguru hartako arratoiak kentzeko egin beharrekoak egin ditzan.
Zerbitzuak	Bizilagun batek dio Amaña 12 parean dauden estoldek zarata handia ateratzen dutela.	Konpondu egin zen 2017ko urte amaieran.
Udaltzaingoa	Kexu da Amaña 12 zk.an dagoen paperontzian baten batek zaborra lagatzen duelako.	Ezin da zaborra kalean laga. Hori egiten duen pertsona identifikatuz gero, zehapen-espediente bat zabalduko litzaioke.
Zerbitzuak	Bizilagun batek pilen edukiontzia eskatu du.	Mankomunitatearekin egin zen kontsulta, eta esan ziguten ez zela eragozpenik egongo, beraz, datozen asteotan jarriko da.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña

DATA: 2017/11/15

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Tiburtzio Anitua 1 zk.aren inguruan aparkaleku gutxi dagoela-eta kexu da bizilagun bat.	Gaizki aparkatzen diren ibilgailuak kontrolatu eta salatzen dira.
Obrak	Auzotar batek Asola Igartza 10 zk.ko pasabide goratua aldatzea eskatu du. Dioenez, goratuegia da eta auto-azpiek asfaltoa jotzen dute.	Asola Igartza 10 zenbakiko gune goratua indarraldiko araudiari jarraituz egin zen.
Udaltzaingoa	Auzotar batek grafitien ugaritzea salatu du.	Pertsona bat grafiti bat egiten identifikatuz gero, zehapen-espeditente bat hasten da eta agindua ematen zaio pintaketa garbitzeko gastua ordaintzeko.
Udaltzaingoa	Artegieta 1 zk.ko parke inguruan dagoen ganberrokeriaz kexu da biztanle bat.	Ez da pertsonarik identifikatu ganberrismoagatik Artegieta parkean.
Alkatetza	Karlos Elegezuan dagoen arazoaren berri eman dute: autobus eta kamioi asko sartzen dira saihebidetik. Inork ez omen du seinaleetan adierazitako debekua errespetatzen eta eskatu dute seinaleak ikusgarriagoak izan daitezela.	Arazo hau Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinarazi zitzaion, esparru horretan seinale gehiago jar ditzan eta, modu horretan, egoera honi irtenbide bat emateko helbururarekin.
Obrak	Karlos Elgezua 1 zk.ko bihurgunearen ingurua zabaltzeko aukera planteatu du auzotar batek.	Bihurgunea zabaltzeko, beharrezkoa izango litzateke aparkalekuak kentzea edo espaloia estutzea. Lehentasuna ematen zaio espaloiarene eta aparkalekuen egungo zabalera mantentzeari.
Udaltzaingoa	Txakurren kakak ez direla jasotzen salatu du bizilagun batek.	Ikusiz gero pertsona batek ez dituela txakurrak egindako kakak batzen, identifikatu egiten da eta zehapen-espeditente bat zabaltzen da.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña

DATA: 2017/11/15

Saila	Laburpena	
Obrak	Auzotar bat kexu da Karlos Elgezua 2, 4 eta 6 zenbakien arteko espaloia egoera txarrean dagoelako.	Tiburtzio Anituaren eta Karolos Elgezuaren arteko igogailuaren obrekin, berriztu egingo da espaloi horren zati bat eta ikusiko da ea gainerakoa berriztu behar ote den.
Obrak	Bizilagun batek Karlos Elgezua 6 zk.ko luizari buruzko informazioa galdetu du.	Aurrekontuak eskatu dira ezponda hori behin betiko egonkortzeko.
Obrak	Auzokide batek galdetu du ea zer egin behar den Karlos Elgezua 6 zk.ko behin-behineko ur-hodiarekin.	Tiburtzio Anituaren eta Karlos Elgezuaren arteko obrekin bere behin betiko lekuan jarriko da.
Obrak	Batek eskatu du Karlos Elgezua 1 zk.ko eskaileren ondoko espaloia beheratzea.	Pasabide goratu bat eraiki da.
Zerbitzuak	Olio-edukiontzi bat jartzea eskatu du Karlos Elgezuan edo inguruetan.	Kontsulta egin zaio Mankomunitateari eta adierazi du, oraingoz ezin direla olio-edukiontzia gehiago jarri; izan ere, duela gutxi horrelako beste edukiontzi bat jarri da Eibarko beste leku batean.
Obrak	Bizilagun batek galdetu du ea igogailurik egin behar den Amañako geltokian.	Proiektua egiten ari da. Obrak gauzatzea aurrekontuaren disponibilitatearen araberakoa da.
Alkatetza	Informazioa eskatu dute Mercadonara joateko oinezkoen pasabideari buruz.	Eskaera hau gune komertzialaren arduradunei egin zitzaien. Hala ere, Mercadonak hartu behar duen erabaki bat da, eta ez dagokio Udalari pasabide hau egitea, lotura denda pribatu batekin izango luke-eta.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña

DATA: 2017/11/15

Saila	Laburpena	
Hirigintza	Bizilagun batek informazioa eskatu du Ziriako Agirre 10 zk.an igogailu pribatu bat eraikitzearen bideragarritasunari buruz.	Hirigintza sailak kasu egiten die era horretako kontsultei: aholkularitza teknikoa ematen du, eta, kasuen arabera, eman beharreko urratsei eta dauden diru-laguntzei buruzko informazioa ematen du.
Zerbitzuak	Ziriako Agirreko espaloian baldosak konpontzea eskatu dute, 8 eta 12 zenbakien artean.	Eskaera hori konpondu da.
Obrak	Tiburtzio Anituatik Bustinduitarren kalera igogailu bat egiteko aukera aztertzea eskatu dute.	Ez da lehentasuntzat jotzen. Irisgarritasunaren arloan, badira aurreragoko lanak.
Alkatetza	Batek informazioa eskatu du aurrekontu parte hartzaileen zifren inguruan eta galdetu du ea zer kopuru dagokion Amañako auzoari.	Guztira, 800.000 euro erabili behar dira Aurrekontu Parte Hartzaileak gauzatzeko. Kopuru hori zortzi gunetan banatu da) (beheko aldea, behe-erdigunea, erdigunea, Amaña, Legarre, Ipurua, Urki eta baserri-auzoak). 400.000 euro modu ekitatiboan banatu dira gunetan, alegia, haietako bakoitzari 50.000 euro eman zaio oinarritzat; eta gainerakoa proportzionalki banatu da gune bakoitzean erroldatutako biztanle-kopuruaren arabera. Horrela, irizpide horiei jarraituta, Amañako guneari 100.822€ eman zaizkio.
Udaltzaingoa	Salatzen dute jendeak behar ez bezala aparkatzen duela Legarre 8 zk.ko garajerako sarbidean.	Legarre 8 zenbakian ez dago baimendutako jarduerarik, ibilgailuak gordetzeko.
Zerbitzuak	Arbolak inautzea eta Amaña 2,4 eta 6 zk.en inguruko atzealdea garbitzea eskatzen dute.	2018ko otsailaren 14an, aipatutako zuhaitzak inausi egin ziren eta garbitu egin zen gunea.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña

DATA: 2017/11/15

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Amaña 6 zk.an espaloitik datorren ur-bilketa akastunek eragindako arazoak direla-eta kexu da.	Arazoa konpondu egin zen.
Obrak	Bizilagun batek dio anbulatorioko parkean putzuak egoten direla.	Jolasen mantenimenduaren ardura duen enpresari eskatu zaio gomazko zoruan uraren irteera bat zabaltzeko, putzurik sor ez dadin.
Udaltzaingoa	Wenceslao Orbeako garajeen inguruan aparkatzeko arazoa dagoela diote, 1 eta 19 zenbakien artean.	Gaizki aparkatzen diren ibilgailuak kontrolatu eta salatzen dira.
Udaltzaingoa	Salatzen dute Bustinduitarren 19. zk inguruan ez dela ondo ikusten, edukiontzien kokalekuagatik.	Goratu egingo da oinezkoen pasabide hori eta begiratu egingo da ea bisibilitatea hobetu daitekeen.
Zerbitzuak	Ziriako Agirreko arbolek zorroak erakartzen jarraitzen dutela diote.	Iaz, landare-zorriaren tratamendu bat aplikatu zen zuhaitz horietan, eta, hortaz, lorazaintzaren arduradunak ez du beharrezkotzat jotzen berriz ere ematea. Arbolek, gaur egun, ez dute landare-zorririk edo pulgoirik, bestelako zorroak dituzte.
Obrak	Karlos Elgezua 8 zk.ko albo bateko bidean asfaltoa hobetzea eskatu dute.	Jarduera hori, beraz, ez da lehentasuntzat jotzen. Nolanahi ere, haren kostua baloratuko da.
Alkatetza	Sentsibilizazio handiagoa eskatu du bizilagun batek, arbolak botatzeko erabakia hartu aurretik.	Obra eta Zerbitzu sailei agindua eman zitzaien, arbol bati eragingo dion obra bat egingo denean, ahal den heinean bere tokian mantentzeko eta, bestela, beste

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña

DATA: 2017/11/15

Saila	Laburpena	
		tokian landatzeko edo beste berri bat landatzeko ostean.
Zerbitzuak	Ez irristatzeko tratamendua eskatu dute Artegieta 1 zk.an dauden kutxatila labainkorretan.	Labaintzearen aurkako tratamendu bat aplikatu zen irailean.
Alkatetza	Auzotar batek eskatu du eskailera mekanikoen ordutegia luzatzeko asteburuetan.	Igogailuei dagokienez, ordutegia luzatu zen, 24 ordu funtzionamendua egon arte, baina, eskailerei dagokienez, irtenbidea zailagoa da, hauen makinariak eragiten duen soinua dela-eta. Aztertu beharko litzateke ea Stop & Go sistemarekin ordutegia luzatu ahalko litzatekeen, baina irtenbidea zaila da, honek ere soinua eragingo lukelako.
Obrak	Berdintasunaren Pasealekuan arbola gehiago jartzeko aukeraz galdetu dute.	Ezin dira arbolak landatu ez dagoelako zorurik eta bakarrik landa daitezke zuhaiskak jardineretan.
Zerbitzuak	Artegieta 3 zk.an argipuntu bat jartzea eskatu du auzotar batek.	Aztertu ondoren, jakinarazi da dagoen argiak ondo funtzionatzen duela eta ez da beharrezko ikusten gehiago jartzea.
Obrak	Bizilagun batek eskatu du Berdintasunaren Pasealekuko zorua lautzea, Tiburtzio Anitua inguruan.	Aurreikusita dago obrak datorren udaberrirako egitea.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña

DATA: 2017/11/15

Saila

Laburpena

Hirigintza

ALFAk sortzen duen zarata salatu dute.

Salaketa batzuk daude zaratagatik Amañako etxeetan, Otaola Hiribideko jarduerak sortuak, baina zaila da zein den zaraten eragilea jakitea. Haietako bat badirudi Alfako estraktore batzuekin dagoela lotuta.

Alfaren jabetzak aldaketak izan ditu eta egun dauden jarduerak legeztatzen ari dira. Espedientearen barruak exijituko da, Zarataren Legea betez, ez daitezela 60dbak gainditu partzelaren mugan.

Zerbitzuak

Auzotar batek Tiburtzio Anituako barandak berrikustea eskatu du. Egoera txarrean omen daude.

Lan hau azaroan zehar kontratatuko den pertsonalak egingo du.